

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

58/2016 Mozioa, irailaren 28koa, gazteen langabezia, prekarietatea eta pobretzearen aurkako politika bat urgentziaz garatu beharrari buruz

Arabako Batzar Nagusiek, 2016ko irailaren 28an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

58/2016 Mozioa, irailaren 28koa, gazteen langabezia, prekarietatea eta pobretzearen aurkako politika bat urgentziaz garatu beharrari buruz

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote aurkeztu dezala, dago-kion batzordean eta 2016ko azken lauhilekoa joan aurretik, diputatu nagusi jaunak iragarritako eta Gazteriaren Foru Erakundearen Ekintza Plana sortzeari begirako prozesu parte-hartzailearen proposamen espezifikoa eta ekintza-plana.

2. Arabako Batzar Nagusiek Foru Aldundiari eskatzen diote ezen, prozesu parte-hartzailearen diseinuan, kontuan hartu daitezela Arabako gizartea eta lurraldeko elkarte enpresarialak, profesionalak, hezkuntzakoak, digitalak eta instituzionalak, gardentasun-, partaidetza- eta ahalduntze-irizpideek gidatu dezaten prozesu hori. Eta benetakoa bihur dadila lurralde historiko osoko gazteen presentzia aktiboa, sortzailea eta proposatzailea, edozein dela ere euren egoera eta kokapena. Arreta berezia jarriko da prozesuan sartzeko beren egoera soziokulturalagatik parte hartzeko zailtasunak izan ditzaketen gazteak.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 28a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA